

Series osatzen duten kapituluak

Gantza -1 -

Gantza -2 -

Unorea -1 -

Unorea -2 -

Navaziak -1 -

Navaziak -2 -

Unediako kontakizunak -1 -

Unediako kontakizunak -2 -

Eskantza

Mateari

Bizitz hartuak

Herminia



Karta bilduma txikia

Herminia

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SARLAREN
ARGUNTZARAZ EGINA.
EIMR Programa 1996.

AURKEZPENA

Kanta bilduma txikia bideo seriea aurkezteko Andoni Egañak Jose Inazio Ansorenaren "Euskal kantak" liburuari egiten dion hizaurretik esaldi batzuk hona aldatuko ditut:

(...)

"Ze polita den bat altutik beste bajutik edo hango hura ez altutik ez bajutik, letran zer datorren asmatuaz, aldamenekoari belarria itsatsiz... kantuan jardutea!"

(...)

"Herri-kantak dira herri honen biziera eta sentieraren ispilurik onena. Eta euskaldunok, geure zorionerako, ehundaka, milaka, herri-kanta ditugu. Askotan, ez dakigu nork eginak diren. Ez dakigu letra zehatz-mehatz nola den, edo jakin arren zer esaten ari garen ez dakigula kantatzen ditugu. Ondo gureak dira halere!"

Hauxe itzateke bideo seriearen helburu nagusia. Euskal kanta herrikoiaak hamabi eta hamasei urte arteko ikasleei erakustea eta beren arteko bilkuretan kanta ditzaten aholkatzea.

Kantatzearen ludikotasunaz baliatuta, beste hiru helburu didaktiko bete nahi dira:

IRIZPIDE NAGUSIAK

HIZKUNTZA

Ikasleek eskolaurrean eta OHOKo lehen kurtsoetan kantuz ikasten dute. Helduen euskalduntze prozesuan aritu izan garenok, ongi baino hobeto dakigu, zein emaitza onak lortzen diren kanten bidez.

Orduan, zergatik ez erabili gure kantak DBHn hizkuntzaren irakaskuntzaren osagarri gisa?

LITERATURA

Euskal ahozko literatura benetan aberatsa da. Bai kalitatearen aldetik, bai gure literaturaren historiarekin berri ematen digulako. Azken bi, hiru hamarkadetan, euskal kantariei esker antzinako poesia hori edozein musika dendetan aurki dezakegu. Halengatik izan ez balitz, agian, galdurik izango genuke.

MUSIKA

Bideo seriean erakusten diren kanten melodiatik oso sinpleak direnez, musikaren oinarritzko arauak ikasteko baliogarriak dira. Besteak beste, musikaren munduan erabiltzen diren hiztegi eta zeinuak, eritmoak, eskalak etab.

Serie honetan erakusten diren kantak aukeratzean hainbat irizpide izan ditugu kontuan. Hona hemen kontuan izan ditugun irizpideak zerrendatuta:

- 1.- Mozkorra edota alkohola edatea goraiipatzen duten kantak baztertea.
 - 2.- Emakume, kultura edo arrazen aurkako alpainen iraingarriak dituzten kantak baztertea.
 - 3.- Kanta oso ezagunak hain ezagunak ez direnekin tartekatzea.
 - 4.- Lagun artean kantatzeko abagunea eskaintzen duten doinuak hobestea.
 - 5.- Belarriarentzat oso arrotz gertatzen ez badira batipat, doinu herrikolak erakustea.
 - 6.- Artzuniketatik deritzen kantak ere kanpoan utzi beharrean gara.
 - 7.- Erronda, eliz eta haur kantak alboratzea, beste serie batosatzeko beste ematen baitute.
- Horrela eratutako galbathetik kanta guztiak pasatu ondoren, kantariekin hitz egin dugu eta harmaika kanta baztertu behar izan ditugu ez daudelako harmonizatutik.

Adierazpen artistiko gisa, musikak **perzeptziozko** eta adierazpenezko alde bikoitza du.

Perzeptziozko eremuaren baitan zenbat gaitasun garatu beharko da:

- Enzute aktiboa, kualitate musikakak bereizteko.
- Musikaren esanahia arretaz entzutea, musika lanen elementuen arteko erlazioa igeritzeko.
- Guztizko memoria, soinu esperientziak gogoratu eta oroiarazteko.

Gaitasun hauen garapena ikasleen esperientzia musikalen aberastasunaz baldintzatuta dago.

Adierazpenezko gaitasuna soinuaren bitartez beren sentimenduak adieraztea ahalbidetzeko.

—Ahotsa, kantaren jarduera musikalera eramaten gaituen berezko tresna da eta musika heziketan adierazpen gaitasunak garatzeko oinarritzko elementua, musika tresnekin batera.

—Inprobisazioak elementu garrantzitsua izan beharke du ahots, gorputzezko edo instrumentuzko soinuaren mundua libreki esploratzeko ballabide gisa.

—Adierazpen artistiko orok kode edo adierazpen lengoaiak bat behar du. Musikaren errealitatean sartzeko beharrezkoa izango da kode hau ezagutzea.

—Musika soinuaren konbinazioen bitartez adierazten da. Lengoaia honen sakonetasun eta eskurapenak ikasleei musika obraren estetika ulertzea ahalbideratuko die.

Helburu orokorrak

- 1.- Ahotsa erabiliz eta bere ideiak eta sentimentuak adieraztea.
- 2.- Musika lanak sorkuntza artistiko eta ondare kulturalerako adibide bezala aztertzea.
- 3.- Musika ezagutzeko eta hartaz gozatzeko iturri desberdinak autonomiaz erabiltzea.
- 4.- Jarduera musikaletan parte hartuz, besteen ekarpenez sortutako aberastasunaz jabetzea.

Edukiak

2. *Multzoa: adierazpena eta komunikazioa*

A) Kontzeptuzko edukiak

- Ahotsen sailkapena.
- Erritimoa, melodia, harmonia, literariotasuna eta interpretazioa.
- Abesti motak eta ezaugarriak. Tradiziozko euskal kantak. Errepertorioa.

B) Prozedurazko edukiak

- Erlajazioa, armasketa, artikulazioa, erresonantzia eta intonazioa.
- Giza ahotsak bere tinbrearen arabera. Ahots taldeak.
- Melodikoak, testu eta eskema eritimoen gainean, eta alderantziz.
- Melodikoak eskema harmonikoaren gainean.

—Abestien eskema formalaren analisia: esaldiak, kopia leloa, errepikapenak.

C) Jarrazko edukiak

- 1.- Ahoz teknika baloratu norberaren ahotza menperatzeko oinarri gisa.
- 2.- Banakako nahiz taldeko ahozko inprobisazioak baiioetsi eta horietaz gozatzea.
- 3.- Kantu interpretazioa baloratzea eta besteen aurrean irekia izatea erlazioa sustatzeko.
- 4.- Taldean gustora parte hartzea, ideia aurkeztuz eta taldearen hobekuntza bultzatuz.
- 5.- Interpretazioen aurrean sentikortasuna eta jarraera kritika agertzea.
- 6.- Edozein nazioko folkloreko abestiak errespetatu eta baloratzea.

Ebaluaziorako irizpideak

- 1.- Taldeko kantu jardueretan parte hartzea, norberaren adierazpen eta intonazioa taldearen soinu mailari egokitzuz.
- 2.- Gelako musika jardueren testuinguruan musika irakurtzea, interpretazio eta entzute zereginen euskarni gisa.
- 3.- Ahoz abesti simple eta melodía laburrak laguntzea, tonika, dominante eta subdominante graduak behar bezala erabiltz.

HIZKUNTZA ETA LITERATURA

"Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Hizkuntza eta Literaturaren azken helburua ikasleek hizkuntzaren oinarriko ondoko lau trebetasunen menderapen pertsonalean aurrera egitea da: entzutea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea. Ekintza pedagogikoa gaitasun hauek finkatzera zuzenduta egongo da eta sakontasunean hedatzera, hizkuntzaren erabilera funtzionala bultzatuz, ahozkoa nahiz idatzikoa, hau da, hizkuntza komunikazio eta irudikapen tresna eraginkor gisa erabiltzea."

Helburu orokorrak

- 1.- Ahozko eta idatzizko berbaldiak ulertzea, beren helburu desberdinak eta ekoizten diren komunikazio egoerak antzemanez.
- 2.- Euskal Herriko euskalkiak ezagutu eta baloratzea, estereotipo soziolinguistikoak gaindituz eta elkar ukitzen direnean sortarazten dituzten arazoak kontuan hartuz.
- 3.- Poesiaren irakurketa eta idazkera komunikazio era eta kultur aberaste iturri gisa baloratu eta haietatik ateratako elekinaz baliatu eta gozatu.
- 4.- Literatur testuak eta asmo literarioa duten ahozko nahiz idatzizko testuak interpretatu eta ekoiztea, jarrera personal kritiko eta sortzaileetatik abiatuta.

Edukiak

2. multzoa: *hizkuntza literaturan*

Mulizo honen oinarriko helburua, garai eta toki guzietako literatur testuen irakurketan oinarritutako ulermena da. Irakurketa gozamenerako sustatzeak ulermena eta adierazpenaren garapena dakar, eta irakurketa dokumentazio eta azterketarako urratsa izatea ahalbidetzen du.

Kontzeptuzko edukiak:

- Testu plana testuaren egitura globala bezala.
- Kohesio prozedurak.
- Testuaren ortografia: paragrafoko banaketa.
- Errima, bertsoaren lerro kopurua, lerro bakoitzaaren silaba kopurua.
- Bertsoaren doinua irakurtzerakoan. Espresioa.
- Inudi linguistikoak, metaforak, alderakuntzak.

Prozedurazko edukiak

Ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko prozedurak

- Irakurketa autonomoa atsegina eta aberaste kulturalaren iturri bezala.
- Prosa eta poesiazko testuen irakurketa espresiboa.
- Testuen gaia identifikatzea.

Ahozko eta idatzizko testuak ekolitzeko prozedurak.

- Testu batean garatu behar den edukiaren plangintza burutu.
- Koherentzia, gramatika eta ortografia arauak eta aurkezpen argia kontutan hartu
- Norberaren ekolizpenen bertikuspen, ebaluzio eta zuzenketa sistematikoa.

Jarrerazko edukiak

- Testu baten aurrean eman daitezkeen interpretazio desberdinez jabetzea.
- Norberak idatzitako testuen gainbegiratzeko duen garrantzia baloratzea.
- Testu idatzia menperatzeak duen garrantzi soziala eta pertsonalaz jabetzea.
- Arraza, klase eta sexuzko aurreiritziak daramatzaten erabilera linguistikoan aurrean jarraera kritikoa garatzea.

Ebaluaziorako irizpideak

- 1.- Ikasleari interesatzen zaion literatura testu bat bere osotasunean irakurri ondoren, zein testu motakoa den identifikatzea, oinarriko egitura elementu nahiz estilozko errekurtsioak ezagutuz eta gehien edo gutxien maitatzen diren alderdiei buruz iritzia pertsonal bat emanez.
- 2.- Norberaren ideia eta esperimentziak asmo literarioa duten testuak ekoizteko erabiltzea. gelan landutako literatura lanak eredutzat hartuz.

3.- Hizkuntzaren mekanismo eta bere elementu formalei buruz (egokitzapen markak, testu egiturak, kohesio prozedurak, perpausen egitura, hitzen eraketa, inrdi linguistikoak, errimak, doinua etab.) hausnartzea, besteen testuak ulertzeko eta norberarenak gainbegiratu eta hobetzeko gai izatearren.

4.- Irakurriako testuan euskalkien arteko ukipen fenomenoak identifikatu, lokalizatu eta deskribatzea, errealitate eleaniztuna adierazpen soziokultural gisa errespetatuz.

Skantza bilatzea txikiak nola erabili

Skantza bilatzea txikiak klasean erabiltzeko proposamen bat egingo dugu jarraian. Arestian esan dugun bezala bere helburu nagusia ikasleengan lagun artean kantatzeko ohitura piztea, edo, hainbat kasutan, agian, berpiztea da.

Ezertan hasi aurretik bideoaren atalen berri izatea komeni da. Bideoan bizpahiru kanta daude eta bakoitzaren lanketa honako atal hauez osatzen da:

- 1.- Aurkezleak kantaren egileari edo hitzen gaiari buruzko alpamen laburra egiten du.
- 2.- Errotulu bitartez kantaren ahapaldi bat edo biren hitzak pantailaratzen dira eta aurkezleak haeli buruzko alpamenak egingo ditu edo alpatzekorik ez dutenak irakurri egingo ditu.
- 3.- Kantariak hitzei dagokien oinarriko melodia kantatu egingo du.
- 4.- Ondoren melodia bera baina modu solfeatuan (DO-RE-MI eran) kantatuko du.
- 5.- Aurkezleak abesbatzak kantatuko duen bertsioari buruzko alpamen laburra egingo du.

Hizkuntza eta Literatura
ematen duen irakasleari proposamena:

Lehenbiziko lana Musika ematen duen irakaslearekin harremanetan jarri eta, bion artean, bideo bat aukeraztea izango da.

Ondoren bideoa martxan jarriko dugu, eta kantaren lehen bi atalak ikusiko ditugu.

Bideoa ikusita, irakasleak kantaren bertso guztiak banatuko dizkie ikasleei.

Hau eginda honako urratsok proposatzen dira:

—Ikasleak taldetan banatu eta olerkia irakur dezatela esango diegu. Ondoren, ulertzeko dituzten trabak argituko ditugu. Jarraian olerkiak diotenaren laburpena egin dezatela esango diegu. Irakasleak agindutako epea bukatzean, talde bakoitzak bere laburpena besteen aurrian agertuko du. Agerpenaren ostean, eztabaida bidez, laburpen adostua osatuko dute denen artean.

—Hori eginda, talde bakoitzak irakurle bana aukeratu du, olerkia, klasearen aurreran irakurtzeko. Gainerako kideei errespetua eta isiltasuna eskatuko diegu.

—Orain olerkian agertzen diren irudi poetikoak ateratzeko eskatuko diegu.

—Jarraian, olerkiaren egitura aztertuko dugu (errima, silaba edo oin kopurua, ferro

kopurua...).

—Hurrengo urratsean olerkiaren egiliez mintzatuko gara, egilerik balu. Ez balu, ezeroz.

—Gero, olerkia egin zen garaiaz mintzatuko gara.

—Bukatzeko, bideoa berriro martxan jarriko dugu eta bosgarren atalajarria, abesbatzarekin batera kanta kantatuko. Abesbatzak bukatzen duenean, bideoa itzaliko dugu eta ikasle eta irakasleak kantaren ahapaldi denak kantatuko dituzte.

Musika ematen duen irakasleari proposamena:

*Lanketarekin hasteko ikasleek musikaren oinarritzko kontzeptuak (hizitegia, partitura...) ikusita izan behar*ko dituzte.

Lehenbiziko lana Hizkuntza eta Literatura ematen duen irakaslearekin harremanetan jarri eta bideo bat aukeratzeari izango da.

Ondoren bideoa martxan jarri eta hirugarren eta laugarren atalak ikusiko ditugu. Alegia, oinarritzko melodiarik eta sofoeari dagozkionak.

Abestien partitura bihurtuko dugu gida honetan, azken orrialdean, zerrendatzen diren liburuetako batean.

Ikasleak binaka jarriko ditugu. Bikote bakoitzari kantaren partitura bana emango dugu. Ikasleek hamar minutuko epa izango dute han agertzen dena irakurri eta do-re-mi erara kantariak kantatutako melodia gogoratzeko. Behar izanez gero berriro jarriko dugu bideoa.

Hamar minutuak pasatu direnean, irakasleak melodiarik buruz galde diezaitela esango die ikasleei. Galderantzunen saio hau gauzak argi geratu arte luzatuko da. Honekin, musikari buruzko azalpen eta iritzi guztiak agertu daitezkeen nahi da.

Dena argi gelditu denean, irakaslea ikasleentzako aurrean jarriko da eta zuzendari papera egingo du. Ikasleak kantariak izango dira. Ikasitako

melodia, do-re-mi erara kantatuko dute denek batera bizpahiru aldiz buruz ikasi arte.

Melodia ikasia dutenean, irakasleak ikasle bikote bakoitzari kantaren lehenbiziko bertso edo ahapaldia eta, kantak leloa balu, leloa ere, emango dio. Bideoa lehen utzi duen tokitik martxan jarriko du lehen kantak irauten duen arte. Horrela, ikasleek hitzak aurrean dituztela eta pantailan abesbatza kantari eta hitzak barrenean, kanta hitzez kantatu ahal izango dute, bai pantailari begira bai beren paperei begira.

Hau guztia eginda, irakasleak kantaren ezaugarriak buruzko azalpenak egingo ditu:

Alderdi musikaletik, (tonalitatea, konpasa, lastertasuna...)

Alderdi historikotik, (zein garaitakoa den, ze musika mota ziren garai hartan, orduko musiken ezaugarriak, kantari erantsi zaionaren erabilpena gizarartean...)

Bukatzeko denon artean inprobisaziora joko dugu. Ahots berriak erantsiz oinarritzko melodiarik, instrumenturen bat sartu akonpainamendu modura... Nahi beste joko egin daitezke, beti ere klasearen helburua hautsi gabe.

Seriea osatzeko erabili ditugun liburua

Resurrección María de Azkue
"Cancionero popular Vasco"
-La Gran Enciclopedia Vasca- BI-1968

Aita Donostia
"Cancionero general" (lau liburua dira)

Jose Inazio Ansorena
"Euskal Kantak"

Liburu hauetan kantaren hitzekin batera musikaren partitura agertzen da.

Hizkuntza eta Literatura ematen duenarentzat:

Aita Santi Onaindia
"Mila Euskal Olerki"
Karmeldar idazleak, Larrea-Amorebieta 1954

Jesus Maria de Leizaola
"Romances vascos y literatura prehistórica"
Editorial Vasca Ekin. Buenos Aires-1959

Musika ematen duenarentzat:

Jose Manterola
"Cancionero Vasco"
Sendoa Donostia-1981

Jorge de Riezu
"Flor de canciones populares vascas"
Sendoa Donostia-1982

"Mendealdeko baladak"
Liburua eta Ruper Ordoikak, Tapiak eta Bixente
Martinezek oraintsu argitaratu kasetea eskura daitezke.

Salleko euskal idazleen elkartera (SEIE)
"Herria oihuka"
Bilbo-1977